

VITORIA-GASTEIZ NAZIOARTEKO VII. XAKE OPENA

Txapelketaren arauak

1. Gasteizko Gran Hotel Lakuan (Tarragona k., 8) jokatu da txapelketa hau. Bederatzi txanda izango dira, 2015ko uztailaren 26tik abuztuaren 2ra bitartean. Hau izango da egutegia:

- | | |
|--|-----------|
| 1. txanda: uztailaren 26an (igandea), | 17:00etan |
| 2. txanda: uztailaren 27an (astelehena), | 17:00etan |
| 3. txanda: uztailaren 28an (asteartea), | 10:00etan |
| 4. txanda: uztailaren 28an (asteartea), | 17:00etan |
| 5. txanda: uztailaren 29an (asteazkena), | 17:00etan |
| 6. txanda: uztailaren 30ean (osteguna), | 17:00etan |
| 7. txanda: uztailaren 31an (ostirala), | 17:00etan |
| 8. txanda: abuztuaren 1ean (larunbata), | 17:00etan |
| 9. txanda: abuztuaren 2an (igandea), | 10:00etan |

2. Sistema suitzarra erabiliko da txapelketan.

3. Hau izango da jokoaren erritmoa: 90 minutu izango ditu jokalariek bakoitzak partida osorako, eta egiten duen jokaldi bakoitzeko 30 segundo gehituko zaizkio.

4. Hasierako rankinga zehazteko, irizpide hauek baliatu dira, eta hurrenkera horretan:

- a) FIDE ratinga.
- b) Titulua.
- c) Estatuko ratinga (FEDA edo baliokideak) edo eskualdekoa,
- d) Hurrenkera alfabetikoa.

5. Jokalari batek bi bider kale egiten duela, edo behin bakarrik, baina inongo arrazoirik eman gabe, txapelketatik kanpo geratuko da. Antolatzaileen esku egongo da lehenengo txandara agertzen ez den jokalaria txapelketatik baztertea.

Hauexek joko da kale egitea: joko hasten denetik hogeita hamar minutu igaro aurretik jokalaria dagokion lekura ez agertzea.

Gehienez hiru *bye* eskatu ahal izango dira. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko zaie epaileei, aurreko txanda bukatu aurretik. *Bye* bakoitzak puntu erdi gehituko du. Azkeneko hiru txandetan *bye*-rik eskatuz gero, ordea, ezingo da saririk eskuratu.

6. Epailerek hartzen dituzten erabakien kontrako erreklamazioak Gora-jotze Batzordeari zuzendu beharko zaizkio, idatziz, erreklamazioaren gai den gertakaria gertatzen deneko txanda bukatzen denetik ordu bete igaro aurretik. Batzorde horrek hartzen dituen erabakiak irrimoak izango dira, ondorio guztietarako.

7. Gora-jotze Batzordeko kideak hauek izango dira:

- Bi jokalariek, titular gisa, eta bi ordezkari.
- Txapelketako zuzendaria (ordezkoa: antolakuntzako ordezkari bat).

Txapelketako zuzendaria edo hark ordezkari izendatzen duena izango da batzordeko burua.

8. Galarazita egongo da joko aretoan partidak aztertzen jardutea, bukatu ondoren; aldiz, horretarako egokitutako areto bat izango da, eta han egin ahal izango da. Nolanahi ere, ezingo dira txapelketan erabilitako taula eta erlojuak hara eramane.

9. Partidan zehar aretotik ateratzekotan, epaileren bati jakinaraztea gomendatzen zaie jokalariei. Ez zaie jokalariei bukatutako partidak aztertzeko aretora joaten utziko, beren partidak artean bukatu gabe daudelarik.
10. Baliabide informatikoen bitartez egingo dira jokalarien arteko parekatzeak, eta joko aretoan eta txapelketaren webgunean jarriko dira. Lehen txandan nor noren aurka arituko den, txapelketaren hasierako ekitaldian bertan jakinaraziko da
11. Parekatzeen kontrako erreklamazioak egoera hauetakoren bat berekin balekarte bakarrik hartuko dira aintzat:
 - bigarrenez jokalaria beraren aurka jokatzea,
 - hirugarren aldiz jarraian kolore berarekin jokatzea (azken txandan izan ezik), edo
 - kolore batekin bestearekin baino hiru bider gehiagotan jokatzea (azken txandan izan ezik).
12. Lehen txanda baino lehen edo hori bukatu aurretik ordaindu beharko zaie antolatzaileei izena emateko kuota. Baldintza hori betetzen ez duten jokalaria txapelketatik kanpo utzi ahal izango dira.
13. Azken sailkapena zehazterakoan, irizpide hauek baliatuko dira berdinketak ebazteko:
 1. Lehenik, jokaturako partiden kopurua (aurkaria agertu ez delako irabazitakoak barne).
 2. Bigarrenik, honako sistema hauek aplikatuko dira, azken txanda bukatutakoan egingo den zozketaren emaitzaren arabera:
 - *Bucholz*, aurkaririk txarrena bazter utzita.
 - Irabazitako partiden kopurua.
 - Emaitza partikularra.
 - Aurkarien ratingen batuketa, txarrena bazter utzita.
14. Honako hauek izango dira sariak:
 1. sailkatua: 2.000 € eta garaikurra.
 2. sailkatua: 1.500 € eta garaikurra.
 3. sailkatua: 1.000 € eta garaikurra.
 4. sailkatua: 800 € eta garaikurra.
 5. sailkatua: 600 € eta garaikurra.
 6. sailkatua: 500 € eta garaikurra.
 7. sailkatua: 400 € eta garaikurra.
 8. sailkatua: 300 € eta garaikurra.
 9. sailkatua: 200 € eta garaikurra.
 10. sailkatua: 100 € eta garaikurra.
 - 1.a, FIDE eloa 1950etik behera: 200 € eta garaikurra.
 - 2.a, FIDE eloa 1950etik behera: 150 € eta garaikurra.
 - 1.a, FIDE eloa 1800etik behera: 150 € eta garaikurra.
 - 2.a, FIDE eloa 1800etik behera: 100 € eta garaikurra.
 - 1.a, 18 urtetik behera: garaikurra,
 1. beteranoa: garaikurra.
 - 1.a, klub antolatzailekoa: garaikurra.

Sari horiek osorik emango zaizkie sailkapeneko leku horietan bukatzen duten jokalariei, legezko atxikipena kendurik.

Dirutan diren sariak ezingo dira pilatu.

Ezingo dute saririk jaso azkenengo hiru txandetako edozeinetan Xakearen Legeetako 5.2.c artikularen arabera (elkarrekin adostuta) hogeita hamar jokaldi baino gutxiagotan berdinketaren bat egin duten jokalariek.

16. Txapelketa hasi aurretik, iraun bitartean eta bukatutakoan, hura aurrera eramateko beharrezkoak diren jokalarien datuak argitaratuko dituzte antolatzaileek: izen-deiturak, ratingak, ordezkatzen duten federazioa, eskura ditzaketen sarien kategoria, aurkaria, berdinketak haustea eta hurrenkera sailkapenean
15. Arau hauek, Xakearen Legeek eta FIDEn egungo araudiak arautuko dute txapelketa hau. Horien menpe geratzen dira, beraz, partaide guztiak, lehiaketak dirauen bitartean.

Txapelketako zuzendaria: Anabel de la Fuente.

Epaille nagusia: Iosu Mena.

Epaille laguntzailea: Patxi Criado.